

Nota de prensa

Marta Cárdenas. Begiak irekita erakusketa bihar hasiko da apirilaren 3ra arte

Marta Cárdenas donostiar artistaren margolan, marrazki eta lan-koadernoak **kubo-kutxa** aretoan ikusgai



Donostia, 2016ko urtarrilaren 15a. José Miguel Ullán-en bertso batzuek, Marta Cárdenasi eskainiak, ematen diote izenburua artista berezi honen erakusketari (**kubo-kutxa** aretoan izango da ikusgai bihar —urtarrilaren 16an— hasi eta apirilaren 3ra —igandera— arte): *“Begiak irekita / amets gozoa margoturik dagoela ikusten du / ur hiletan sugar biziak sutan”*. Eta bertso horiek badute antzik urte batzuk lehenago, 1970ean, bere jaioterrian, Donostian, banako lehenengo erakusketa egin zuenean, Eduardo Chillidak eskaini zion *haiku* batekin: *“Begiratzen dena bakarrik / martak / barrutik geldi aurrerantz / ikusi margotzen du”*.

Erakusketa **kubo-kutxak** produzitu du Alfonso de la Torre komisario dela, eta Cárdenasen lanera bi atal nagusiren bidez hurbiltzea proposatzen du: “Barrua” eta “Kanpoa”. Erakusketan artistaren margolan eta marrazkien aukera zabala izango da, baita haren lan-koadernoen multzo bat eta egiten duen lan bereziaren beste alderdi batzuk ere.

Marta Cárdenas

Marta Cárdenas Donostian jaio zen 1944an. Era autodidaktan paisaiak margotzen hasi ondoren, batez ere urmargo edo akuarelaz, 1958 eta 1961 artean marrazketa-eskolak jaso zituen Gipuzkoako Arte Elkartean. Gero Madrilen San Fernandoren Arte Ederren Eskolan ikasi zuen eta titulua eskuratu zuen 1968an. Urte horietan abangoardia abstraktuarekin sartu zen harremanetan —bereziki Cuencako taldeko margolariekin eta sortu berria zen Juana Mordó galeriara atxikitakoekin (1964)— eta urte haiek funtsezkoak izan ziren bera sortzaile gisa hazteko; baita ere garrantzizkoak Parisen egindako egonaldiak, bereziki Frantziako gobernuaren bekarekin 1969an egin zuena.

60ko eta 70eko urteetako lanen ondoren, autorretratuak eta barrualdeak tonu grisetan, Marta Cárdenasen lana kolore anitzeko mundura iritsia dela ematen du. 1979. urtea jotzen du margolariak berak kanpora igaro zeneko urtetzat.

90eko urteen erdialdera baztertu egin zuen bere ezaugarri izandako trazu laster eta keinuzkoa, 1996an Indiara egindako bidaiaren ezustekotik: “Biziki hunkitu ninduen herrialde hartan ikusitakoak. Kolorez betea dago alde guztietatik. Konturatu nintzen koloreaz banekiela uste nuen guztia deus ez zela haiek egiten dutenaren aldean”.

Erakusketa

Erakusketa bi eremu handitan banaturik dago: “Barrua” eta “Kanpoa”.

Lehen eremuan, *Gela iluna* azpтитulu pean, Cesare Pavese-ren “*gela iluna zara / beti gogoratzen dena berriro*” [*La terra e la morte*, Lurra eta heriotza (1945-1946)] oroitaraziz, bere lanak erakusten ditu, batez ere 60ko urteen erdialdetik egindakoak, eta urte haietan artistak barrutik behatzen zion munduari.

“Kanpoa” eremuan aire zabaleko abentura batzuk jarraitu ahal izango dira: paisaietan (basoak, behe-lainoak, urkiak, urak eta euriak), horietako asko Euskal Herrian; serietan,



José Luis Esteve

Marta Cárdenas “Mamelena”, Donostia
1970

Arropa esekita bezalakoak, edo erakusketa ixten duen atala: *Oihalak / Afrika / Oroitzapenak*, artistaren lanaren ia azken hogei urteak hartu dituena.



Marta Cárdenas
Esekigailua, 1979
Durangoko Arte eta Historia Museoa

Erakusketa osatzeko artistaren marrazki eta koadernoen lagin zabala, fisikoki nahiz digitalizatuta, erakutsiko da, ezinbestekoak Marta Cárdenasen lan egiteko era ezagutzeko.

Paloma Chamorrok *La edad de oro* arte-programa aitzindarirako (TVE, 1984/X/31) egin zion elkarrizketa ere, Luis de Pabloren musika daukana, ikusgai izango da erakusketan.

Erakusketa hau partikular eta erakunde askoren maileguei esker egin ahal izan da, eta, besteak beste, aipatu behar dira Artium, BBK, Gipuzkoako Foru Aldundia, Juan March Fundazioa, La Caixa, Aragoiko Gobernua, Bilboko Arte Ederren Museoa, San Telmo Museo, Madrilgo Arte Garaikidearen Udal Museoa, Reina Sofia Arte Zentro Museo Nazionala, Nafarroako Unibertsitatea eta Kutxa Fundazioa.

Jarduera paraleloak

Ohi bezala, eta hezkuntza-zorroztasunaren ildoari jarraituz, arte-eremuko hezkuntza ezagutza sortzeko erreminta gisa ulertuz, familiengan pentsaturiko jarduerak egingo dira. Familientzako tailerrak larunbatetan izango dira 12:00etatik 13:30era

Familientzako tailerrak:

Ez ikusteko betaurrekoak.

Erakusketara bisita dibertigarria egin ondoren, tailer experimental bat egingo dugu, eta etxean bertan egindako betaurreko bereziak erabiliko ditugu. Betaurreko horiek ikuspegi partziala emango digute eta inguruko objektuen zati txiki bat bakarrik ikustera behartuko gaituzte, ebakita bezala. Begiratzeko era berri horrek, emaitza gisa, marrazki harrigarriak emango dizkigu, eta horietan lerroak eta koloreak balio berezia hartuko dute, eta figurazioaren eta abstrakzioaren arteko mugak lausotu egingo dira.

Asteroko bisita gidatu doakoa: 2016an **kubo-kutxa** aretoa doako bisita gidatuak egiten hasiko da larunbatero, 18:30ean euskaraz eta 19:30ean gaztelaniaz, eta horretarako aurrez izena ematea besterik ez da egin beharko.

Katalogoa

Erakusketaren izenburu berarekin dagokion arte-katalogoa argitaratu da, 274 orrialdekoa, euskaraz eta gaztelaniaz (gehi separata frantsesez eta ingelesez) 240 x 280 mm-ko formatuan.

Datak eta ordutegiak

Marta Cárdenas. Begiak irekita erakusketa zabalik izango da jendearentzat **kubo-kutxa** aretoan 2016ko urtarrilaren 16tik apirilaren 3ra artean, asteartetik igandera, 11:30-13:30 eta 17:00- 21:00 bitartean. Beti bezala, sarrera doakoa da.



Marta Cárdenas
Goi-Herri, 1982
Juan March Fundazioa